

Zeruaren grisa

Politak Ana Urkizak azken Ttakunean jarri dituen hitzak. Ez esaten jakitea. Kosta egiten da, ez pentsa. Ez nuke sekula sinetsiko zenbat. Eta susmoa daukat ez ote garen ezintasun horrekin bizitza betiko lehiatuko gure bihotzaren diskurtsoan. Konplikatua. Niri dagokidanez, ikasten ari naiz benetan Ez eta Bai noiz esan. Ulertzen ari naiz ere, Ez edo Bai esaten dudalarik, ekintza berak ez duela balore bera batengan edo beste norbaitengan, eta, zoritxarrez, alferrikakoa dela argitzen saiatzea, esanahi hori aditu nahi ez bada. Modernitateak ez du ñabardurazko zamarik nahi. Esango nuke ez diogula ñabardurari inolako lekurik eskaintzen gure bizitzan. Matrioska panpina hutsen jokoan bezala, Ezezko handienak ezezko txikiago batzuk ere izan ditzake, bata bestearen barruan. Eta Baiezko handienak ere berdin-berdin. Egia esateko, ez dakit dantza hau ondo maneiatzen. Zeruaren grisa maite dut, urruntzen diren bideak, kontent nago neguaren gertutasunarengatik, ez naiz hain bakarti sentitzen. Bai eta Ez, hitz horiek ikaratu egiten naute. Ez esan nahi baino lehen bai esaten dut norbait agradatu egin nahi dudalako, eta poztasunaren justu kontrakoa da esandakotik datorren emaitza: sufrimendua. Eta norgehiagoka saihestu aldera, bai erantzuten badut, zorionaren justu kontrakoa da ere emaitza: sufrimendua. Eta horrela bizi behar, sufrimenduaren erbeste tamalgarri moduko batean, “sufrimenduaren erbesteratu gisa”, Yasmina Reza idazleari irakurri nion bezala. Inkonformismoaren ibaiak duela mende asko galdu zuen ura bere bi ertzen artean. Askok gara inprobisaturiko erbeste horretan bizi garenok. Eta erbestea gero eta handiagoa da.

CONCETA PROBANZA



José Luis Padrón



Agirre



Urkiza

Baiezko eta ezezko bakar borobilen esklabotzak ez ditu ezezko eta baiezko zorrotzak kontuan hartzen. Bere onetik ateratzen du haren kontrakolari ezetz esanda ere, berari ere ezetz esateak. Beste hari ez, baina, kontuz, zuri ere ez. Bai zuri, baina, argi, bai beste hari ere. Hau da, intentzio txarrik gabe Euskal Herria bai esaten badut, ez dut Galizia ez esan nahi. Eta Galizia bai esaten badut, ez dut Euskal Herria ez esan nahi. Izan ere, bi munduren semea naiz ni. Spock komandantea bezala. Nahiz eta ez dakidan oso ongi zein den zein, zein Vulcanok, eta Lurra zein. Nongo gizartea estralurtarrakoa eta nongoa gizatiarrakoa. Mundua bitan banatu nahi duten baiezkapenek nire ezetza jasoko dute, argi eta garbi, errespetua irabazita eduki arren beste zatiarekiko oinarritzko errespetua mespretxatzen badute, jasoko dute nire onarpena oinarritzko giza errespetu hori bera aintzat hartzen badute. Mundua bat bakarra bateratua dela, denok munduko herritar garela azpimarratzen duten aldarrikapenek nire baiezkoa jasoko dute, argi eta garbi, identitatearen printzipioa aintzat hartzen badute, jasoko dute nire ezezkoa identitatearen printzipio hori bera mespretxatzen badute. Nire ezezkoa ez baita “ez” esan eta asetzen, aldekoaren alde ere dagoelako batzuetan. Nire baiezkoa ez baita “bai” esan eta konformatzen, kontraren kontra ere dagoelako gehiengotan. Ez da esperientziaren bitartez, diplo-

matikoagoa bihurtu naitzela, gehiago da ez dudala inoren agindurik onartzen, politika- eta erlijio- eta zorion-eskolekiko desobedientziarekin batera argi grisarekiko estimua jaio zaidala. Kontu honetan gauza benetan triste bat baino ez dago: bizitza halako obedientziaz bizi ahal izatea. Bai ala ez? **n**



Euskal Herria bai esaten badut, ez dut
Galizia ez esan nahi. Eta Galizia bai esaten badut,
ez dut Euskal Herria ez esan nahi. Izan ere,
bi munduren semea naiz ni

